

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

## 2517

*AGINDUA, 2016ko maiatzaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko prozedurari hasiera eman zaiola iragartzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34.1 artikuluan ezartzen denez, farmazia-bulego berriak irekitzeko deialdia edo, hala bada, deialdi hori bidezko ez dela aditzera ematen duen iragarpena urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo da, biztanleen udal-errola berrikustetik ateratako datuak izan ondoren.

Bertan adierazitakoa betetzeko argitaratu zen Osasuneko sailburuaren 2015eko martxoaren 13ko Agindua, Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean beste farmazia-bulego bat sortzeko prozedurari hasiera eman zaiola eta bigarren bat sortzea bidezkotzat jo dela iragartzen duena (2015eko apirilaren 7ko EHAA).

Hala ere, une honetan ezin da zehaztu zein osasun-barrutitan koka daitekeen bigarren farmazia hori, zeinarentzat iragarri baitzen berau sortzearen egokitasuna; izan ere, lehenengoaren kokapenaren arabera zehaztu behar da bigarrena. Hori dela eta, farmazia-bulegoak sortzea, lekuz aldatzea, ixtea eta jardunean jartzea arautzen duen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 1.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko, bigarren farmazia hori sortzeko prozedurari hasiera emateko deialdia egingo da, kokalekuaren gaineko, hau da, osasun-barrutien gaineko zalantza argitu ostean.

Hori dela eta, aipatu deialdia kokaleku posibleari buruzko zalantzak erabat argitu arte ez egitea zuzenagotzat eta geroko interesdunentzat mesedegarriagotzat jo zen.

Honela bada, farmazia-eskualde berean farmazia-bulego berri bat jartzeko 2015eko martxoaren 13ko Aginduaren bidez hasitako prozedura burututa, farmazia-bulego berria zein eskualdetan kokatu ahal izango den zehaztuta dago.

Hori guztia kontuan hartuz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdia egiten da Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean beste farmazia-bulego bat sortzeko, farmazia-bulegoak sortzea, lekuz aldatzea, ixtea eta jardunean jartzea arautzen duen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuan xedatutakoarekin bat (otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

11/1994 Legearen 13. artikuluan ezarritako irizpideekin bat, iragarritako farmazia-bulegoa honako hiru osasun-eremu hauetakoren batean kokatu beharko da:

1.1.09 – Lakua-Arriaga.

1.1.10 – Lakuabizkarra.

1.1.12 – Ariznabarra-Ajuria-San Martin.

2016ko ekainaren 10a, ostirala

Farmazia-bulegoaren titulartasuna lortzeko eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabetekoa izango da.

Aipatu eskabideak ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako agiriak erantsita aurkeztu beharko dira, 24/2004 Dekretuak emandako idazkeran.

4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoez gain, eskabideak honako helbide hauetan aurkeztu ahalko dira:

Osasun Saila  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz.

Osasun Saileko Arabako Lurralde Ordezkaritza  
Olagibel kalea 38  
01004 Vitoria-Gasteiz.

Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza  
Antso Jakitunaren kalea 35.  
20010 Donostia

Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza  
Errekalde zumarkalea 39.  
48008 Bilbao

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 24a.

Osasuneko sailburua,  
JON DARPÓN SIERRA.